

## **ODA BIZITZARI**

Alvaro Diez

*Errenteria*

Jaioberritan,  
amildegia.

Haztean,  
jakiten hastea.

Lagunak egitean,  
enpatia ulertzea.

Ikasten hastean,  
begien zabalketa.

Etxean geratzean,  
bakardadea.

Bakarrik joatean,  
nekea.

Inorekin egotean,  
tristura.

Jakitea,  
depresioa.

Ez jakitea,  
beheraldia.

Etsita egotean,  
suizidioaz pentsatzea.

...

Berriz hastean,  
esperantza.

Hura galtzean,  
etsipena.

Pertsonak ezagutzean,  
berreskuraketa.

Lagunekin egotea,  
liluratzea.

Festan ateratzean,  
erokeria.

...

Berri txarra,  
egonezina.

Hausnartzean,  
kezkatzea.

Azkenean,  
onartzea.

Oraina,  
nahastea.

Gerokoa,  
misterioa.

Azkenean,  
berriz,  
amildegira.